

2.– IZADIAREN JATORRIA



Santio-bidea, begi utsez ikusi diteken, gure galaksiaren zatia da.

Erlejiñoak eta kondaira edo leiendak Jainkoa ipinten dabe izadiaren egille baiña Jainkoak izadia zelan egin eban ez dakien lez, ipuin-antzeko irudiak asmatzen dabez.

Orrelan gure Bibliak be, baiña ez da izaten ori agerpen edo “rebelaziño” bat zientzi-gaiari begira, orduan aurrean euken zintzia onartzen dabe eta olako mundugintzara Jainko egillea sartu. Biblia’ko edestia India’tik zabaldua da.

Baiña zientziak gaur diñoana eta Darwin’ek azaldu eban mundugintza aurrerakoa ez dago, berez, fedearen aurka: Bibliak Jainkoa ipinten dau egille eta zientziak izadiaren sorkundea zelan gertatu zan jakin nai dau. Mundugintzaren aurrerapenean ikusten dogu gaurko fededunok Jainko egillearen eskua. Gaur be Jainkoak mundugintzan jarraitzen dau.

Jakintsuen eritxiak mundugintzari buruz ez datoz batera.

Batzuren ustez izadia geldi dago, beti gai bardiña dauka.

Baiña beste batzuren ustez, orain millaka milloi urte dirala, kenengo uñak agertu ziran, batzuk ezezkorrak edo negatiboak, beste batzuk baiezkorrak edo positiboak eta orreik kizi edo atomoak sortu ebezan.

Jakiña da kizi edo atomo bakoitxak bere barruan indar positibo ta negatibo orrek orekan daukazala. Ortik sortu zan “kizizko lerkia” edo “atomozko bonbea”.

Asierako uin areik atomo biurtu ziranean, guztiak batu egin ziran eta orrelan sortu zan asierako bola aundi ikaragarri bat, izadi osoaren iturri izango zan bolatzarra.

Mundugintzan lenengo urrats ori bete zanean, lertze ikaragarri bat sortu zan (bin-bag) eta kizi batzuk oksijenoa, idrojenoa, burdiñea, sufrea, karegaia... eta beste gai bakanak lurrin biurtu eta aske geratu ziran, baiña geienak gai-sendo edo masearen zati izan ziran. Orretan igaro ziran 30 milloi urte. Gai-sendo ta lurrin, dana nasteen egoan ezelako egokitasun edo orden barik.

Irugarren urratsa dator orain mundugintza onetan. 100 milloi urte geroago biribil aundi ori lerketa batek zatitu eban eta zatiak alkarragandik urrintzen asi ziran eta gakalziak sortu ebezan. Galaksia bakoitxak eundak milloi olako zati daukaz eta zati bakoitza eguzki bat da. Oraindiño be mundua zabaltzen dago, galaksiak sortzen.

Eguzki asko orreik be zatitu egin ziran eta orreik dira izarbel edo planetak. Asieran lurrunezkoak izango ziran, gero ur biurtu eta geroago sendotu eta bakoitza bere ardatzaren inguruan biraka asi ziran, izarbelak eguzkiaren inguruan eta sateliteak izarbelaren inguruan. Or daukagu gure lurra eguzkiaren inguruan, eta or iretargia lurraren inguruan.

Ederra benetan, arrigarria, mundugintza-lan au!

**OLAZAR’tar Martin’ek
Margo Ederdun Entzikolpediatik eratua.**